

Goi

Goierritarra aldizkaria

376. zenbakia 2010eko otsailak 26



**AZKEN
MAILOTA**

ARANTZA ARANBURU

GEOLOGIA TIK HISTORIA ERAIKIZ

ALTAMIR
JATETXEA

Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T 685 794 755 / altamira@geni.net



RAKOTTE



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Or naburu Dra.

(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea


BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulita, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Inazio Usarralde

Aizan, Eduardo Galeano idazle uruguitarrari irakurri zionat duela gutxi ez duela mundu honetan ibiltzen asma-tzen, ezin dela ibili bertsio modernoago edo berriago bat atera dutela eta gauzak beste-rik gabe boteaz berriak eroste-ko, gaur egun 50 urtez behera-koak iri diren moduan. Hau ere jaso egin beharko dugu badaezpada dioen belaunaldi-koa dela bera, ezer ere bota-tzen ez zuen hartakoa. Bai,

bai, umea jaio eta haren zila eroritakoan hura ere gordezten zuten haietakoak! Berak ez duela esan nahi hau edo hura zela hobe, ez duela horretan sartu nahi. Bakar-bakarrik ezin diola mundu honetako abiadari eutsi.

Hitz horiek irakurri eta zer edo zer barruan zitzake hasi zaidan. Geu ere gupil zoro horren barruan bizi garela, alegia. Gaur egun gauzak erosten eroste hutsagatik gabiltzala

Balio ez duena bota ezan/k! dun


gaur egun entzuten den lelo nagusia.

askotan -eguraldi txarra dagoelako etorri gara eta zer edo zer eroriko da gaur ere- entzuten zionat jende askori.

Hi, ez dinat artzapezpikua baino santujaleago jarri nahi. Batzuetan, tartean ere erosiko dinagu benetan behar dugun tramankuluren bat, bai kuantu! Eta? Erosten dugun hark, behar beharrezkoa izanik ere, zenbat irauten zigun? Ez dabilela eta, konpontzera joan eta berehalaxe hasiko zaizkigun erantzun magikoa ematen: “konpontzen hastea baino berria erostea merkeago atera behar zaizu, eh!”

Balio ez duena bota ezan/k! dun gaur egun entzuten den lelo nagusia. Eta ez gaitun ohartzen, beharbada, bota beharreko tramankuluekin batera, beste gauza batzuk ere bota beharreko hondakin bihurtzen ari garelà, hala nola adiskidetasuna, lagun arteko giroa, maitasuna...

Galeanogana itzuliz, iraunkorra behar lukeena galkor bihurtzen ari gaitun eta, alderantziz, hasiera batean galkorra dena iraunkorra. Alde bat zegon: tramankulu bat botatzen/galtzen badun beste bat eros dezaken diruz ordainduta (baldin badaukan!), baina lagun bat galduz gero?



Joxepa Madariaga

Ondo dakik, Iñaxio, troglodita xamarra naizela izatez eta erabat identifikatu nauk aipatzen duan Eduardo Gleanoren hausnarketarekin.

Tresna eta arropei buruz ari garelarik zaborra ikaragarri sortzea egingo diagu, baina, lagunekin, maitasunarekin, adiskidetasunarekin... modu berean jokatzan dugunean, zabor ontzietan kabitzen ez diren “produktuak” sobratzen zaizkiguk: lagunak, adiskideak, senideak, pertsonak...

“Lagun bat galduz gero?”, galdetzen duk. Ba hutsune hori beteko duenik ez zagok, ez beste pertsonarik, ez beste ezer. Zenbat eta lagun gehiago, zenbat eta maitasun

Lagun zaharrek zaintzen eta lagun

berriak egiten ikasi beharko genikek

handiagoa, orduan eta hobe. Guztien beharra diagu, guztiek behar gaitiztek. Hori duk benetako “beharra” eta ez erakusleihoko punta-puntako ordenagailua, adibidez.

“Behar dut” esaten dugunean, hamarretik zortzi edo bederatzitan “nahi dut” esan beharko genikek. Nahiak, gogoak, gutziak (kutixiak), kapritxoak “behar” bihurtzen dizkiagu eta lortu arteko onik ez diagu izaten.

Lagun zaharrak zaintzen eta lagun berriak egiten ikasi beharko genikek, horretan irakatsi beharko liguketek. Goxo, mimoz, errespetuz, jator jokatu beharko genikek senideekin, lagunekin, pertsonekin. Baina, bazirudik, tresnak ditugula adiskideen. Geroz eta maizago entzuten diagu: "ezin bizi naiteke telefonorik gabe!", "argindarra eten da eta ez telebista, ez ordenagailu... zer egin?"

Tokitan zeudek garai batean beheko suaren inguruan babarruna aletzen, nahiz galtzerdi egiten eta kontu-kontari pasatako tarteak! Garai hartara bueltatu nahi dudarik ez diat esango, baina orduko hartatik zerbait berreskuratuko bagenu, telebista armairu barruan gordeta...

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama,
Itsasondo eta
Legorretakoko udalak



Giruzkasa Foru Aldundia

Goi
Goierritarra aldizkaria

HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behe
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Gizatiarra iruditzen zait zerura begiratu eta,
eguzkia edo euria datorrelako poztu edo
kexatzea. Baina datorrena datorrela gure
bizimodua moldatzea, hori da naturala.



Joseba Imaz

Klima aldaketari, giza aldaketa

Guztiongan du eragina eguraldiak. “Txori nahiz intsektu, zapo ala suge, ganadu eta ganaduzale, aberats zein behartsu, nola aitona-amona, nola aita-ama. Eguraldia beti dago airean eta, airearen arabera, pisu, heze edo lehor, denok sentitzen gara umore onean edo txarrean”. Hala zehazten du Pello Zabala frantziskotarrak, argitaratu berri duen liburuan. Ez zaio arrazoirik falta, ez noski. Ez noa euskal meteorologiaren maisuari kontra egitera. Neguaren gorria jasaten ari garen honetan, baina, beste burutazio batean jarri nahi nuke arreta: eguraldiari bizkarra emanda bizi gara. Gure bizitzan ondoriorik ez balu bezala bizi nahi dugu.

Jar ditzagun azken asteotako ekaitzak adibide bezala. Denbora luzez ez bada ere, errepide eta kale bazterrak bizpahiru aldiz zuritu ditu elurrak. Autoa lasaitasun osoz hartzen dugu horrelakoetan (kateak maleteroan ditugun begiratu gabe igual), egunero bezala, lanera edo erosketak egitera joateko. Baliteke zapatila xume batzuk jantzita irtetzea etxetik. Portaleko babesetik kanpora, hor izaten dira komeriak! Autoa garajetik ezin atera, errepidea elurtuta eta ezin lantokira iritsi... eta deskuidatuz gero, hormatutako zoruan irrist egin eta hankaz gora erori. Ez nuke esan nahi halakoetan etxean geratu behar dugunik, baina bat etorriko zarete nirekin: neurri gutxitxo hartzen ditugu eta ez ditugu zeruak jarritako mugak errespetatzen.

Eguraldiaren ondorioz arazoak ditugunean, udaletxe edo Diputazioarekin gara kexu. Ez dutela abisatu, ez digutela etxe

ataria garbitu, errepidea zuri-zuri eginda geratu dela... Erakundeei beren eginbeharra betetzea exigitu behar diegu, nola ez, herritarron segurtasuna zain dezaten. Baina guk ere gehiago egin dezakegu. Ez baitugu betarik pala bat hartu eta etxe ataria garbitzeko. Baina hori beste kontu bat da.

Horrelakoetan azaldu ohi dugun jarrera kexatiak eta purrus-taden atzean dagoenak kezkatzen nau gehiago. Ez ote du jarra horrek zeruko gertakarien inguruan dugun ezagutza falta ezkututzen? Ez al diogu naturari errespetua galdu? Galdera horiei baiezkoa erantzun beharrean nago. Beldur naiz eguraldia, beste hainbat gauza bezala, gure beharretara egokitu nahi ez ote dugun.

Gizatiarra iruditzen zait zerura begiratu eta, eguzkia edo euria datorrelako poztu edo kexatzea. Sanoa ere bai, dudarik gabe. Baina datorrena datorrela gure bizimodua moldatzea, hori da naturala. Atmosferako fenomenoengatik inguruan jakituria zientifikoa pilatu dugu azken hamarkadetan, baina eguratsa ulertzeko gaitasuna galdu ere bai. Pello Zabalak –barkatuko al diit bere izena hain erraz erabiltzea– naturaren mintzoa aipatzen du bere erreflexioetan. Mintzo hori galdu dugu, gizadiaren hizkuntza aditzeko gaitasuna. Gure arbasoek ez baitzekiten atmosfera zein geruzatan banatuta zegoen, baina bai handik edo hementik jotako haizeak zein eguraldi zekarren. Bazekiten natura irakurtzen. Haiek ere kexatuko ziren, noski, baina ziur naiz beren bizimodua eguraldiak baldintzatzen bazuen ere, konformidade eta naturaltasun handiagor hartzen zituztela ekaitzak, lehortekak, elurteak eta bestelakoak.

Norbaitek argudiatu dezake, klima aldaketak desorientatu gaituela gu ere. Baliteke arrazoi puntu bat izatea. Ezin dugu ahaztu ordea, klima aldatzen ari bada, kasu honetan, gizakiaren jarduerak moldaldarazi duelako dela. Naturari errespeturik ez diogulako eta gure bizimodura egokitu nahi dugulako. Lurraren berotzea frenatu asmoz ari garen honetan, ez ote genuke hobe lehenbizi giza aldaketa lortzea?



kutxa

Urdaibaiko geologia Goierrin



Arritzagako ur-saltoak (Aralar). Arg.: A. Bodego

Landarlan ingurumen taldeak antolatuta, **“Lur-zientziak Urdaibain” erakusketa** izango da ikusgai **martxoaren 4-14 bitartean Beasaingo Usurbe erakusketa aretoan**. Erakusketa hau Euskal Herriko Unibertsitatean Unescok bideratutako ikerketa proiektuen emaitzetan oinarritzen da, unibertsitatean zientzialariek egiten duten lana gizarte-ari hurbiltzeko.

Harrigarria badirudi ere, Urdaibaiko eta Goierriko geologiak parekotasun handiak dituzte:

Errudistak: Gure inguruetako mendizerra edota mendi-ton-tor nagusiak (Aizkorri, Aralar edota Murumendi) kareharriz osatuak daude eta bertan errudistak (moluskua fosilak) aurkitzea oso arrunta izaten da, nahiz eta ez duten Ereñokoen kolore gorriarik.

Kretazeoa: Aurreko mendeetan horren garrantzitsuak izan ziren Mutiloa edota Zeraingo meategietako mea Kretazeo garaian sortu zen. Tektonikak

eraginda mineralez saturaturiko fluidoak pasatu ziren mea arroketan kontzentratuz.

Bolkanismoa: Europa eta Iberia plakak Kretazeoren hasieran hurruntzen ari zirenean, sortutako lekua betez intrusio bolkanikoak gertatu ziren. Gaur egun Arriaran

Harrigarria badirudi ere, Urdaibaiko eta Goierriko geologiak parekotasun handiak dituzte.

inguruetan ikusi daitezke.

Tektonika: Pirineoak sortarazi dituen Europar eta Iberiar plaken arteko talkaren lekuko dira hainbat errepideetako lur-ebakietan ikus daitezkeen tolesak: N-1 errepidean Idiazabal, Ormaiztegin GI-632 errepidean, Astigarretan GI-3192 errepidean...

Hidrogeologia: Aralarko eta Aizkorriko sistema karstikoen lurpeko urak hauen balio garrantzitsuenetakoak dira. Gainera, karstean sorturiko koba sistemek garrantzia handia izan ohi dute.

Ugaztunak: Sistema karstikoe-tako kobetan ugaztunen aztarnategi nagusiak metatzen dira. Adibidez, Ataungo Troskaeta koban aurkituriko *Ursus spelaeus* hartzairen hezurrak, duela 20.000 urtetakoak.

Arantxa Bodego

Hitzaldiak

Martxoaren 1, 8 eta 15ean hitzaldi bana emango dute Euskal Herriko Unibertsitateko geologia irakasleek **Beasaingo udaletxeko batzar aretoan, arratsaldeko 7etan**.

- ✓ **Patxi García-Garmillak** arroakak gizakiaren historian zehar nola erabili izan diren errepasoa egingo du: apaintzeko, babesleku gisa edota idazteko, besteak beste. Gaur egun nola erabiltzen ditugun eta etorkizunari begira gogoeta bat ere egingo du.
- ✓ **Arantza Aranburuk** kobazuloetan ezkututzen den denboraz hitz egingo du, Atapuercako aztarnategia erabiliz adibide gisa: aztarnategia zergatik sortu zen, hezurak nola pilatu ziren, nondik sartu ziren, zein adin duten, edota espeleotemen bidez klimaren aldaketak nola irakurtzen diren ere azalduko digu.
- ✓ **Xabier Murelagak** gizateriak betidanik izan duela fosilekin lotura erakutsiko digu, nahiz eta aintzina eta gaur egun hauen irakurketa ezberdina egiten den. Horrela, mitologiak eta paleontologiak duten loturaren berri eman-

JAKIN BEHARREKOAK

“Aizkorri-Aratz Parke Naturala” liburua argitaratu du Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiak. Argazkiak Gema Arrugaetak egin ditu eta testua eta diseinua Iñigo Doriak.

“Astelehena haragirik gabe” Erresuma Batuan hasi berri den kanpaina.

Ekintza xume eta erraz honen bidez negutegi efektua eragiten duen gasen murriztea lortu nahi dute. Kilo bat txekor haragia jan edo 250km kotxean egiteak CO2 isurtze maila berdina dute. Kanpaina honen alde dagoen ONG baten esanetan “Amerika Latinan ekoizten den soja-ren %90 herrialde aberastetako animaliak hazteko da”. Nekazari batek hektarea bateko lusailarekin 30 pertsona elikatu ditzake landareak laboratzen baditu. Haragia, esnea edo arraultzak ekoizten baditu ordea, 5 edo 10 gizaki elikatu ditzake. Belgikako Gantes herriak astearte hartu du haragirik gabeko eguna bezala kanpaina honekin bat eginez.

Estatu Batuetako Ape-lazio Auzitegiak Enola indabaren patentea baliogabetu du. Jatorri mexikarreko indaba hau patentatu zuenak merkaturako monopolizatu zuen hamar-kada oso batean. Indigena baserriarren jakinduria eta baliabideekin hazitako indabaz jabetu zen. Guztien onurako izan zedin ukatuz. Biopirateriaren aurkako beste pausoa.

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albistiren bat bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

"Datorren iganden ni're jungo nitzten, ba!"

Maizpide euskalategia

Ez dira gutxi izenburuan agertzen dena bezalakoak hitzetik hortzera erabiltzen dituzten goierritarrak. Jabetu al zarete zein "aje"ri buruz arituko garen gaur? Bada, horrela ez bada, erreparatu ondorengo adibideei, eta ikusi ea zer duten komunean:

- ✗ Mexikora joango banintz, ez nintzen Ciudad Juarez-etik pasatuko! (*desegokia*)
 - ✗ Ardoa edango bazenu, mozkortu egingo zinen. (*desegokia*)
 - ✗ Loteria tokatuko balitzait, erdia zuri emango nizun. (*desegokia*)
 - ✗ Tosback Realeko entrenatzailea izango balitz, Reala orain 3. mailan egongo zen. (*desegokia*)
 - ✗ Ordizia Rugby Taldeak burrungo biru partidak irabaziko balitu, mailari eutsiko zion. (*desegokia*)
 - ✗ Euskaltegiko ikasleak gauean zintzo portatuko ez balira, gauzanari umorea aldatuko zitzaion. (*desegokia*)
- Konturatu zarete, ezta? Goiko esaldiek horrela behar dute:
- ✓ Mexikora joango banintz, ez **nintzateke** Ciudad Juarez-etik pasatuko! (*egokia*)
 - ✓ Ardoa edango bazenu, mozkortu egingo **zinateke**. (*egokia*)
 - ✓ Loteria tokatuko balitzait, erdia zuri emango **nizuke**. (*egokia*)
 - ✓ Tosback Realeko entrenatzailea izango balitz, Reala orain 3. mailan egongo **litzateke**. (*egokia*)
 - ✓ Ordizia Rugby Taldeak burrungo biru partidak irabaziko balitu, mailari eutsiko **lioke**. (*egokia*)
 - ✓ Euskaltegiko ikasleak gauean zintzo portatuko ez balira, gauzanari umorea aldatuko **litzaioke**. (*egokia*)

Datorren igandean etorriko al hintzateke nirekin Tolosara, Alaitz?

Hiregatik balitz, urte osoan inauteri, On Mario!



Parranda egitera joango balira...

Maiz antzean erabiltzen dugun lehenaldiko forma hori sartzeko, "baldintzaileak" edo lehenengo parteak ez du "-KO" eramango... eta "IZAN" sartzea izango dugu, nahi izanez gero:

- ✓ **Duela bi hilabete Mexikora joan (izan) banintz, ez nintzatekeen / nintzen Ciudad Juarez-etik pasatuko!** (*egokia*)
 - ✓ **Joan den larunbatean ardoa edan (izan) bazenu, mozkortu egingo zinatekeen / zinen.** (*egokia*)
 - ✓ **Iaz Gabonetako loteria tokatu (izan) balitzait, erdia zuri emango nizukeen / nizun.** (*egokia*)
 - ✓ **Clemente "bidali" eta gero, Tosback Realeko entrenatzailea izan balitz, Reala 3. mailara jaitsiko zatekeen / zen.** (*egokia*)
 - ✓ **Ordizia Rugby Taldeak orain dela hamabost urte azken bost partidak irabazi balitu, mailari eutsiko ziokeen / zion.** (*egokia*)
 - ✓ **Euskaltegiko ikasleak astelehen gauean zintzo portatu (izan) ez balira, gauzanari umorea aldatuko zitzaiokeen / zitzaion.** (*egokia*)
- Bigarren parteari "ORAIN" eransten badiogu, ordea, orainaldian joango da:
- ✓ **Duela bi hilabete Haitira joan (izan) banintz, orain, beharbada, hilda egongo nintzateke!** (*egokia*)

Gogoratu, bestalde, "-KE" hori ... ondorioari (edo 2. parteari) jarriko diogula... eta ez baldintzaileari (edo 1. parteari):

- ✗ Mexikora joango **banintzateke**, ez nintzateke Ciudad Juarez-etik pasatuko! (*desegokia*)
- ✗ Loteria tokatuko **balitzaidake**, erdia zuri emango nizuke. (*desegokia*)
- ✗ Ordizia Rugby Taldeak burrungo hiru partidak irabaziko **balituzke**, mailari eutsiko lioke. (*desegokia*)

Amaitzeko, EZ AHAZTU "birusa" hain hedatuta egoteak ez duela esan nahi txukuntzen ahalegindu behar ez dugunik! Zuzen erabiltzen ez dutenei ZUZENDU, MESEDEZ, euskararen eta guztion onerako izango da eta!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. 1. Parisera joango bazinake, Eiffel Dorrea ikusiko zenuke.
2. Anoetara gurekin etorriko balitz, primeran pasatuko zuen Patxik.
3. Datorren igandean ni neu ere gustura joango nintzateke, bada, pilota-partida hori ikustera!
4. Jakin izan banu, ez nintzen telebistako saio hartara joango.

OHARRA: Lehenengoan, joango bazina behar du; **bigarren**an, gurekin etorriko balitz, primeran pasatuko luke (oraina); edo gurekin etorri (izan) balitz, primeran pasatuko zukeen / zuen (lehena); **hirugarrena** eta **laugarrena** zuzenak dira.


Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN



Koldo Agirre



“Kirolarien jarraipena egitea da gure lana”

Beasaingo Eskolarteko Kiroleko koordinatzailea. Korrikalaria, duatloietan ere aritzen da, IVEF ikasketak egina. Orain, Sasoian zentroa ireki berria du Beasainen.

Erdaraz esaten denez: korrika egitea koldarra da.

Badaezpada ere hobea da prest egitea egunen batean korrika egitea tokatu behar izanez gero ere!

Kirola zer da zuretzat: afizioa, ofizioa, bizioa...

Ba uste dut horietako dena dela. Afizioa zena, ofizio bilakatu da eta baita bizio ere.

Zu kalean, korrika ikustea ohikoa da. Urtean zenbat kilometro egiten dituzu korrika?

Buff... ez dakit seguru, baina, asko, 4.000 km inguru.

Zein da prestatzaile fisiko baten lana?

Gugana etortzen diren kirolarien jarraipen bat egitea da. Lehendabizi helburua zer den ikusi behar da. Ondoren, kirolaria ezagutzen saiatu behar gara eta ondoren, planifikazio bat egin, helburu hori betetzen ahalegintzeko.

Kirolik osoena, osasuntsuena:

Kirola neurrian eta egoki egitea da kontua. Gorputz atal guztiak landu beharko genituzke. Igeriketa ona da, baina, ongi igeri eginez gero. Baina, pertsona bakoitza mundu bat denez, bakoitzaren ezaugarriak kontuan izan behar ditugu, patologia edo lesioak.

Modan al dago kirola egitea?

Bai. Batzuek, afizios egiten dute, beste batzuek aldiz, itxuraren-gatik. Jendeak orokorrean geroz eta kirol gehiago egiten du.

Jendeak egoki egiten al du kirola?

Denetik dago; badago egoki egiten duen jendea, baina, badira astakeri galantak egiten dituztenak ere. Hemen, ez da oso ohikoa prestatzaile batengana jotzea planifikazio baten eske. Hala

ere, ohitura hau hartzen ari garela esango nuke.

Adibidez, korrikan hasi behar duen batek zer hartu behar du kontuan?

Korrika egitean artikulazioek asko sufritzen dute, inpaktuzko kirol bat baita. Hasteko, gehiegizko pixua ez izatea komeni da, bestela hobea da hasieran kilo batzuk jaitsi eta bizikletan has-tea adibidez. Ondoren, poliki-poliki hasi beharko ginateke kilo-metroak eta abiadura sartzen. Erabiltzen ditugun oinetakoek ere garrantzia handia dute, lesio asko hortik etortzen baitira.

Eta asko egiten duen batek?

Entrenamenduen intentsitate eta karga batik bat. Ezin gara beti forman egon. Planifikazio egoki bat egin behar da, bestela, gain-entrenamenduak eta lesioak etor daitezkeelako.

Kirola osasunagatik egin nahi duenarentzat, asteko plantxo bat proposatu iezaiguzu:

Astean 3-4 egunetan zerbait egitea ongi legoke. Nik, gimnasio pixka bat lan aerobikoarekin tartekatuko nuke. Gimnasioan muskuluak tonifikatuko ditugu eta lan aerobikoarekin gure linea mantendu. Gimnasioko lana soilik egitea ez da gomenda-garria, baina bai biak tartekatzea.

Gustukoen duzun lasterketa:

Herrikoa, 'Usurbeko igoera', gogorra bezain polita.

Gustukoen duzun kirola:

Denetik egitea gustatzen zait. Talde kirolak entretenituagoak dira, esku-pilota, futbola... baina korrika konpainia onean egi-tean ere disfrutatzen da.

Haurretan, lehia baino gehiago, partehartzea bilatzen da.

Zaila egiten da. Denoi gustatzen zaigu irabaztea eta haurrengan eta gurasoengan ere hori pasatzen da. Gure lana askotan hori aurrera eramaten ahalegintzea izaten da.



Geologiatik historia eraikiz

Atapuercako ikerketa taldean dabil, Arantza Aranburu EHUKo geologia irakasle olaberritarra

Kobazuloek ematen duten informazioa aztertu eta historia eraikitzen laguntzen du EHUKo doktore eta Geologia saileko irakaslea den Arantza Aranburu olaberriarrak, paleontologiarekin uztartuz. Karst sistemetan aditua, klima aldaketak ere aztertzen ditu. Martxoaren 8an, Beasainen emango du hitzaldia, geologia zientzia gizarteratzeko helburuarekin. Hitzaldiaren aurrerapentxo bat egin digu.

Landarlanek antolatutako jardunaldietan, hitzaldia eskainiko duzu martxoaren 8an. Atapuercako aztarnategia erabiliko duzu adibide gisa. Hitzaldiaren aurrerapen bat egingo al diguzu?

Nik uste dut jardunaldien asmoa dela, geologia gizarteratzea. Zientziaren beste adarrak ezagunak dira, eta geologia ezezagunena da edo gutxiena gizarteratuena dagoena. Antolatzaileen asmoa izan zen, jendeari aditzera ematea zer dagoen hor atzean. Horren inguruan hiru hitzaldi antolatu dira, harriaren bila-kaera edo historia zein izan den, fosilak eta mitologiaren arteko joko bat ere badago beste hitzaldi batetan, eta nirea izan da, Euskal Herrian hain ezagunak diren kobazuloetan zer gorde-tzen den azaltzea. Kobazulorik ezagunenetakoa Atapuerca da eta adibidetzat hori hartuta, Atapuercatik, geologiak zer konta-tzen duen jendeari esatea.

Atapuercako ikertzaile taldekoa zara. Noiztik ari zara? Nolatan sartu zinen?

Bizitzako beste gauza asko bezala, kasualitate hutsa izan zen. Unibertsitateko nire ibilbidea gainera ez da izan orain kobazu-loetan egiten dudan honen ingurukoa. Guztiz kontrakoa izan zen: karrera bukatu baino lehenago, Aralarren hasi nintzen, hango harriak aztertzen, eta ikaskeketak bukatu nituenean, Aralarko adin bereko arroken azterketa egin nuen, baina Karrantza inguruan, Bizkaiko beste puntan. Gertatzen dena da, karaitz horiek sortu ziren garaian, itsasotik kanpo ateratzen zire-la eta kobazuloak sortzen zirela... Nik nire lanean definitu nituen orain dela 120 milioi urteko kobazuloak. Hori izan zen kobazuloekin eduki nuen harreman guztia. Tesia idazten ari nintzela, Unibertsitatean, ikarakasleentzat txango bat antolatu zen Atapuercara joateko. Ni ez nintzen apuntatu, teklei eman eta eman ari nintzelako tesia bukatu ezinik. Baina kale bat egon zen, paleontologo batek ezin izan zuen irteerara joan. Aurreko gauean etxera hotsegin zidaten, leku bat zegoela eta animatze-ko. Joan nintzen, bisitan. Erakusten ari zitzaizkidan heinean, galderak egiten nituen. Hala esan zidaten: "argi dago zu ez zarela paleontologoa". Denak paleontologoak ziren. "Ez, ni estratigrafiakoa naiz", esan nion. "Ba gu estratigrafia baten bila gabiltza ba lanerako. Zergatik ez zara datorren urtean hona lanera etortzen?". Azaleko gonbite horietakoa iruditzen zitzai-dan. Guztiz ahaztu nuen kontua. Itzuli nintzen, lanean segi eta 6-7 hilabetera, eskabazioko zuzendari bat, Juan Luis Arsuaga, hitzaldi bat ematera etorri zen. Joateko asmotan nintzen baina goizeko 9ak aurretik, telefona, nirekin hitz egin nahi zuela Juan Luisek. Ni, harrিতuta. Bulegora etorri zen, gogorazartera, esan zuen hura ez zuela huts-hutsean esan eta ea joateko asmoa neukan. Urtebeterako joan nintzen. 1999. urtean izan zen. 2000. urtetik aurrera beraiekin hasi nintzen.

Zein izaten da geologo baten lana Atapuercan? Historia aztertzen geologo bat aritzea, arraroa egiten zaigu.

Egia esan, Atapuercan lanean ibiltzen garenetatik gutxi-en-koak gara geologoak. Hiruzpalau baino ez gara ibil-tzen. Atapuerca karst sistema handi bat da. Dena zuloz beteta dago mendia. Mendi horietan, XIX. mende bukae-ran, Demanda mendizerrako minerala Burgosa eramateko trenbidea egin zuten. Trenbidea egiten 10 bat urte pasatu zituzten (gero urtebe-tez ere ez zuen funtzionatu)

eta trenbidea egiterakoan, mendian, agerian jarri zituzten leize-zuloak. Badaude leizezulo batzuk, kanpotik sartzen garenak. Ez zarena sartu behar mendiaren barrena lana egiteko. Beste galeria zati handi batera, kaskoekin eta argiekin sartu behar zara. Jende askori, horrek erreparoa ematen dio, ez da eroso sentitzen barruan lanean. Lantalde bat bagaude, 15 bat lagun, udan lanean aritzen garenak, eta ikerlari buru 7 bat gara. 7 horiek gara fijoak gara, kobazuloaren barruan aritzen garenak. Orain arte, bi kobazulo besterik ez gara ari aztertzen, ez dauka-gulako denborarik gehiagorako.

Zer egiten du geologo batek hor barruan? Hori da pixka bat hitzaldian azaldu nahi nuena: hezurrak, fosilak, ez dira jaiotzen. Egin egiten dira. Horrekin esan nahi dut, buztinetan sartuta azaltzen direla, areetan sartuta, arroka mota batzuekin nahastu-ta edo tartekatuta... Adibidez: jakin nahi badugu hezur horiek horra nola iritsi diren, ulertu behar da, hezur horiekin batera dagoen sedimentuak, lokatzak edo harriak zer kontaktzen digun. Esate baterako: Atapuerca barren-barrenean, azken-azkenerai-no, hiru ordu laurden pasatzen ditugu, arrastaka, buztina hoz-katuz, 17 metro jaisten gara sokaz eta behean, leku itxi txiki bat dago. Izugarritzko hezur pila bat dago bertan. Garai batean baserritarrek eta artzainek ganadua hiltzen zenean, simatan behera botatzen zituzten eta irudi horrekin parekatzen dut. Siman, lehenengo galdera suertatu zena zen, nola iritsi ziren hezur horiek horra, ea katastrofen bat izan zen (euri jasa han-diren bat, kobazuloren batek hondoratu...). Nik konpondu beharreko galdera zen hori. Ez dago arrazoirik. Banan-banan gorputzak sartuta daude.

Irakurri dugu, zure ikerketa baten ondoren, hezur batzuk uste baino zaharragoak direla, hezurren gainean egin den kapa bategatik atera duzu datua. Hezurren datazioetan ere lan egiten duzu.

Bai, eta izugarritzko iraultza izan da gure mundurako, ez da gizarteratzen eta. Hezurrak gizakiaren argazkia zein den esaten digu. Hezuraren formagatik badakigu zein taldetakoak diren. Zein adin zuten, gizonezkoa ala emakumezkoa zen... Hezurrek asko kontaktzen dute, baina ez dena. Hezurren gainean, kapatxo bat aurkitu genuen. Pentsatzen zen, heidelbergensis hezurrek 350.000 urte zituztela, baina gure ikerketaren ondoren, 500.000 urtetik gora jarri zaie. Horrek, Europako mapan, Atapuerca, aztarnategirik zaharrena bezala kokatzen du. Oraindik pentsa-tzen da, Afrikatik, Asiatik bueltan sartu zela heidelbergensis eta galdetzen duzu: nola da posible, buelta guzti hori eginda, zaha-rrena Atapuercan topatzea? Geologiara etortzen zen pelota bueltan. Paleontologoa seguru baitzegoen hezurrak heidelber-gensisena zirela. Arrazoituz eta arrazoituz aritu behar zara, ira-ganeko historiaren puzzlearen ertz hori findu eta ondo jartzeko.

Zein da Atapuercaren berezitasuna, hain garrantzitsua izateko?

Irudikatu behar duguna da, paisajea nola joan den alda-tzen historian zehar. Leku batzuk, gaur egun ikusten dugunetik, ez dira hainbeste aldatu milioi urte hauetan. Baina paisaian, forma ez aldatu arren, beharbada forma horren gainean zego-e-na aldatu da.

Atzera eginda, garai hotzak, glaziazioa, eta bat eta beste izan ditugu. Glaziazio garai fuerteneetan ere, Euskal Herrian, ez zegoen glaziaris-morik. Aralarren badago

Hezurrek asko kontaktzen dute,
baina ez dena. Hezurren gainean,
kapatxo bat aurkitu genuen.
Ordura arte, heidelbergensis
hezurrek 350.000 urte zituztela
uste zen, baina gure ikerketaren
ondoren, 500.000 urtetik gorakoak
direla ondorioztatu da.

definituta, glaziarrek utzitako hondakinak izan ote daitezkeen baina oso gutxi dago. Picos De European bai, baina ez zen hona beharino glaziarrik ailegatu.

Baina eragin handia izan zuen begetazioak. Nahiz elurra ez ailegatu, garai hotzak ziren eta begetazioa aldatu egiten zen. Begetazioak aldatzean, ehiza ere bai eta ehizaren atzetik giza-kiak ibiltzen ziren. Orografia egokiaz gain, basoak, belazeak, ura... zeukaten Atapuercan. Atapuercak betetzen ditu bete beharreko 10 puntuen baldintza guztiak. Ez da oso altua, 1.000 metro dauzka, ez zeukan elurrik gainetan. Ebroko arroaren eta Dueroko arroaren pasabide bakarra da. Pasabide horretan, zeharka dagoen mendilerro bakarra. Puntu estrategikoa da: bazekiten, animaliak, pasabide batetik bestera ibiliko zirela. 1.000 metroko altuerak bista ere ematen du. Bi artoetan ur putzuak zeuden (uretako fauna handia azaltzen da, errinoze-ronteak, oreinak, sarriokak...) eta basoa ere bazegoen.

Atapuercak osatzen du gaur egun, eta lehen ere bai, azal-tzen zaigun polenagatik eta egur zatiengatik, Mediterraneo-Atlantinko transito hori. Hurritzak, arteak, gaztainondoak, pinu mota bat... ere bai azaltzen dira.

Beste kontu bat: garai hortarako, Atapuercan kobak bazeu-delako. Garai hartan hemen ez zegoen kobarik. Batzuek elurrez beteta zeudelako, beste batzuk, beste material batzuek beteta zeudelako. Atapuercan, geologiagatik, urte pilo bat daramaki mendi tontor hori estali gabe. Gaur egun, nik dakidala, Espainiko karstik zaharrena da.

Goierri bi karst sistema nagusi ditugu, Aralar eta Aizkorri. Leku garrantzitsuak al dira?

Nik jendea behar dut lanerako! Aizkorri, Arantzaditik ere hasita gaude baina *mea culpa*, ez dut behar bezainbeste egin. San Adriango tuneletik hasi ginen. Eta bai, liluragarriak dira horko karst sistemak.

Karst sistemetan bereiztu behar dira zeintzuk diren karst sistema aktiboak, gaur egun oraindik ura filtratzen denekoa eta zein den alde fosila. Historia eraikitzeke gehiago interesatzen zaigu alde fosila aztertzea. Aldiz, espeologogoei, ikasketan aritzen direnei, nik uste du alde aktiboak gehiago gustatzen zaizkiela. Oraindik ez da ezagutzen aipatu dituzun bi sistema haue-tan, alde fosila kontatzeko daukaek. Ezagutzen dira badaudela, baina espeologogoei paso egiten dute, ez dagoelako urik, bete-ta dagoelako... Ni hantxe geldituko nintzateke nire buztinekin. Ikusi dudagatik, ikusgarria da, baina oso zaila da historia eraikitzea, bai hemen eta bai edonon. Hain jende gutxi egote-ak, bi arrazoi ditu: bat, gustatu egin behar zaizu benetan loka-tza artean ibiltzea; eta bi, historia ateratzea oso zaila. Zergatik da zaila? Adibidez, laku baten historia osatuko bagenu, erre-kak iritsiko dira, sedimentuak utziko ditu ertzean, eta ertzetik barru-rantz. Historia eraikitzeke nahikoa duzu behetik gora egitea, badakizulako behean dagoena zaharragoa izango dela eta behean dagoena berriagoa. Karst batean, gaur euria egiten badu, goitik sartuko da eta ez dakit nongo errekan aterako zaizu. Gorago utziko dizu gauza bat, beheago beste bat... ez da horizontala izango. Erlazionatu behar dituzu, leku ezberdi-neko gauza ezberdinak, gai izan identifikatzeko momentu bere-koak direla, eta hortik historia ateratzea oso nekoso da. Jendeak paso egiten du eta leku errazagoetara joaten da. Ni, nonbait, burugorria eta bes-teek nahi ez duten horretan nabil.

Baina bai, Aizkorri eta Aralar ikusgarriak dira. Espeologogoei ateratzen dituzten krokisetetatik eta ikusten dena... beti joateko-tan nabil. Ibilbide bat egina

daukat eta beste batzuei erakusteko moduan nago. Orain jende berria badator. Geologoak ez gara asko, ez gara inoiz asko izan, eta ea Aralarraio ekartzen ditudan batzuk.

Urdaibaiko haitzuloetan ere ikerketa egiten ari zarete.

Lan guztia kanpoko egiten eta etxekoaz ezer jakin gabe? Aralarraio kobazuloak ikusten ditugu eta Barandiaranek eginda-ko arkeologia lanak dakizkigu eta batez ere, gizakia kobatar-a noiz sartu zen aztertu da. Baina koba noizkoa da? Koba guztiak ere ez dira garai berdinean sortu. Itsas mailan aldaketak hobe-to erregistratuta daudenez, koba zenbat eta itsasotik gertuago egon, historia montatzea errazagoa da. Arrazoi horregatik eta lantokitik gertu samar gelditzen zaigulako, Urdaibai aukeratu genuen. Urdaibain badago itsasotik oso-oso gertu, 20 metrot-a-ra, koba bat. Ez dauka beste garrantziarik baina errekarriak barruan sartuta ditu eta gainean estalaktitak eta estalagmitak. Horien adina jakin nahi nuen nik eta 300.000 urte ingurukoa dela atera da. Koba oso zaharrak dira, uste genuena baino ere askoz ere zaharragoak. Giza okupazioa, hemen, orain dela 40.000 urte hasi zen, gure espeziea etorri zenean. Neanderthalaren berririk ez daukagu hemen. Ez dakit hotzegia zen hau beraientzako edo pasatu ziren eta arrastorik ez zuten utzi, edo badaude eta guk oraindik ez ditugu aurkitu. Kobak 40.000 urte okupatu bazituzten, kobek, asko jota, 100.000 urte izango zituztela esaten zen, atzerago joan behar dugu.

Obrak eta ikusten dituzunean, errepide berriak-eta abar, zuk beste era batera ikusiko dituzu ezta?

Ez naiz mendia zulatzearen aldekoa, inolaz ere, baina pena gehiago ematen dit, zabaldua gero, tapatzen ikusten ditudane-an. Badira urteak, 12 bat urte, egunkari guztietara idatzi berdi-na idatzi nuen, titulua zuen, 'No solo lo verde es natural'. Esanez, ezponda bat ireki errepide bat egitea, auskalo nondik ekarritako hazia injektatu. Norbait kezkatu al da harri horietan zer dagoen? Ez, zeren zerbait ateratzen bada, arazo bat dauka-te. Bergararik-Arrasateko bide horretan agertu ziren. Uste dugu, legatz tipoko arrain bereziak zirela, seguraski, definituta ez dau-denak. Oraindik, munduan, inork ez dakiena existitzen direnik ere. Obretakoek hartu eta gu konturatzeko saltzen saiatzen ziren. Nire lankide paleontologo batek ikusi zituen. Hauek, bil-duma pribatueta joaten dira eta dirua egiten dute horrekin. Hori da, adibide bat. Baina hari horretatik tiratuz, eta geure Euskal Herri polit honetan, harri bat ikusteko plegariak egin behar ditugu, eta behin zanga bat edo ezponda bat irekiko zer-bait ikusteko, eta aurreneko gauza, tapatzea izaten da. Barandiarani zor diogu eta arkeologia asko gizarteratuta dago, eta denok onartzen dugu. Obra bakoitzean arkeologo bat dago, zerbait ateratzen bada, aztertu egiten du eta zein garrantzikoa den esaten du eta hortik aurrera itxoin egiten da. Geologo bat ez dago inon. Zerbait ateratzen denean, obrako buru denak ez dakit nori abisatu behar dio, gelditzea dirua da, zerbait garran-tzitsua bada auskalo... argi dago nik beste begi batzuekin ikus-ten dudala. Gure artean esaten dugu, trafikora bidali behar dugula, beste seinale berri bat egin dezaten: kontuz, geologoa bolantean. Geologoa normalean paretari begira joaten baita. Behin eginda gero, zementoz estali beharrean edo belarra bota beharrean... irakasteko erabil dezakegu. Nafarroako autobide-an ere eskaini genuen geure burua atsedenaaldi gunetan, pane-lak egiteko, jendea azalduz

paisaia zer den. Australian ez dago leku bat, gelditu zintez-keen lekurik, panelik gabe. Ez dakit panela den modurik onena, baina gutxienez apro-betxatzen dute, jendea azal-tzeko zer dagoen. Erantzunik ez genuen jaso.

Orain jende berria badator.
Geologoak inoiz ez gara asko
izan, eta ea Aralarraio
ekartzen ditudan batzuk.

Klima aldaketen ispilu

Klima aldaketari buruz ere informazio ugari ematen omen digute kobazuloek.

Hala da bai. Gaur egun, aldaketa klimatikoa dela eta, egia da aldatzen ari dela baina lehen ere aldatu zen eta etorkizunean, gu egon ala ez egon, aldatzen jarraituko du. Bi erregistro preziatu daude klima neurtzeko: itsas sakon-sakonena bilatzen diren sedimentu fin horiek. hara ez da iristen errekek eramandako emaririk. Ur zutabeen bizi diren izaki txikiak biltzen dira hilda gero. Oskoletako karbonatoak, isotopo azterketak eginda, jakin daiteke, oskol hori sortu zenean itsasoko uraren tenperatura zein zen.

Bigarren altxor paleoklimatikoa estalaktitak dira. Hor bi gauza nahasten dira: alde batetik, koba barruko tenperatura, koba hori dagoen kanpoko batz besteko tenperatura adierazten du. Gu Aralarren kobara sartzen garenean, seguraski, 6-8 gradu izango dira, hori delako, urteko batz besteko tenperatura. Mediterraneoan esaterako, kobata sartzean, berotu egiten gara. Zergatik? Batz bestekoa, 15-18 gradu inguruan egoten delako.

Gauza bera, estalaktiktak sortzen den tantanetik minerala askatzen denean, mineral horretan badago informazioa eta tenperaturarekin lotuta dago. Puskatutako estalaktikta bat kapaz kapa aztertuko bagenu, jakin liteke kapa bakoitzaren adina zenbatekoa den, eta adin bakoitzean ze oxigeno mota dagoen eta horrekin ateratzen da, koba horretako tenperatura aldaketa zein izan den eta hortik ateratzen duzu kanpoko zein den.





**Dioni Galparsorok eta
Mikel Gaztañagak
txirrindularitzari agur esan diote**

Abuztuan utzi zuen txirrindularitza Galparsoro ataundarrak eta abenduan Mikel Gaztañagak. Batek zazpi urte egin ditu profesional mailan, besteak berriz sei.

Txirrindularitzan bizi dituen garai zail hauetan talderik ez dute aurkitu eta hots handirik egin gabe utzi dute lehiaketa.

Goierritarratik, zuen ibilbidea gertutik jarraitu dugu. Afizionatueta zenbiltzatenean, profesionaletara pasatu zinetenean, eta orain agurraren garaia iritsi da. Nolakoak dira txirrindularitza utzitako ondoren egunak?

Mikel Gaztañaga: Arraroa egiten da: Mallorcan hasita eta jarraitu ere ez dut egin. Lehen dena, bizikleta zen, ea nork irabazi zuen izaten zen.

Dioni Galparsoro: orain konturatzen zara, bizitza normalean, beste arazo batzuk egoten direla.

Txirrindua erabat utzi duzue ala zertxobait ibiltzen zarete?

Galparsoro: Erabat utzi dut. Abuztuan utzi nuen txirrindularitza eta aurreko egun batean hartu nuen aurreneko aldiz bizikleta. Porru eginda bukatu nuen.

Bizikleta mundua ez zait batere gustatu, azkenean gelditzen direnak, lagunak dira.

DIONI GALPARSORO

Gaztañaga: Itsasondoko ziklo kros proba arte entrenatzen jarraitu nuen baina orain beste gauza batzuk egiten hasi naiz: korrika hasi naiz, raketarekin... lehen egiten ez nituen gauzak egiten.

Galparsoro: korrika bai, baina bizikletarik ezer. Mantentzeko egiten dut korrika, bestela kiloak erantsi egiten dira eta.

Gaztañaga: Ez ginen konturatzen baina energia asko gastatzen genuen bizikletan.

Galparsoro: Kirolik egin gabe hiru egun egon eta gaizki sentitu ere bai. Ohituta gaude fin-fin egoten eta orain pisu pixka bat hartuta, ez gara ondo ikusten. Anorexia bezala ia. Niri berdin zait 100 kilo hartuta ere baina gaizki sentitzen zara. Egutero bihotza tope edukitzetik ezer ez egitera pasatu gara.

Hori ere ez da ona izango.

Gaztañaga: Txarra.

Galparsoro: Ni ospitalean egon nintzen takikardiekin, eta golpetik uztearen ondorio izango zela esan zidaten. Bihotza oso handituta neukala. Zerbait egin beharko dugu.

Bihotza prestatu gabe zeneukaten beraz golpetik uzteko eta burua?

Galparsoro: Bai. Azkeneko bi urteetan ez naiz oso gustura ibili. Azkeneko urtean ere, urtea ondo hasi zen, taldeak itxura ona izango zuela zirudien, baina apiril aldera konturatu nintzen ez zegoela fundamenturik. Lehendik ere desanimatuta baldin bazeunden, puntilla izan zen hori.

Gaztañaga: Uzteko gogorik ez neukan. Egia da azkeneko urtean gehiago kostatzen zitzaidala mentalizatzea entrenatzeko, baina uzteko ez neukan asmorik. 23-24 urterekin, gogo baldin

bazaizu, gauza asko berdin zaizkizu, baina 30 urte pasarekin, talde arraro samarra bada, asko kostatzen da. Talde askotan pasatzen da, talde on-onetan izan ezik. Arazoak talde guztietan egoten dira baina gogoia falta bada...

Segitzeko gogoarekin gelditu al zarete?

Galparsoro: Nik uste dut, bizikleta, ondo ibiltzeko dela. Eta ni behintzat, azkeneko bi urteetan, ez nintzen nahi nuen mailara iritsi. Azkenean, funtzionario bezala egiten zara: kobratu egiten dut eta kitto, baina bizikletarako beste ilusio bat behar da. Ilusiorik gabe ibiltzea oso zaila da. Gogorik ez uzteko, baina gertatuz gero, pakea. Ez dit penarik eman.

Gaztañaga: Nire kasuan, oraindik baneukan segitzeko gogoia. Azkeneko urteetan mentalizatzea kostatu egiten zitzaidan baina gogo pixka bat baneukan aurrera egiteko. Gero eta maila handiagoa dago txirrindularitzan eta irabazteak edo ondo ibiltzeak balio du, bestela taldetik kanpo berehala gelditzen da. Ez bazauden %100an mentalizatuta eta gustura, zaila da aurrera egitea. Gaztetan nik uste dut errazagoa dela.

Txirrindularitza uzteko gazteak zarete ezta?

Galparsoro: Bai, 35 urtera arte jarraitu daiteke. Baina lehen esan dudana, ondo ez baldin bada egon behar, eta egoteagatik egotea... Aurreneko urteetan ondo ibili nintzen eta beti aspirazio batzuk jartzen nituen. Baina azkenaldian zortetik ez dut izan, lesio asko izan ditut. Urteak pasa eta gauza bategatik edo besteagatik ez zara iristen nahi duzunera... Bizikleta ondo ibiltzeko da, erdizka ibiltzeak ez du balio. Pelotoiaren % 70 horrela dago. Baina urtero talde bila ibiltzea zaila da.

Zuen bizitzako etapa bat bukatu duzue beraz.

Gaztañaga: Zaila da profesionaletara iristea eta egia esan behar baldin badugu, zorte handia izan dugu.

Galparsoro: Nik uste dut errazagoa dagoela, gure garaian baino.

Desagertzekotan dagoen talde batean, aldamenekoaren “kontra” arituko zara. Talderik ez dago eta konpetentzia oso handia da.

MIKEL GAZTAÑAGA

Gaztañaga: Zortea eduki behar duzu afizionatueta ondo ibili, talde on batek hartzea, jarraipena izatea. 30 urtera arte aguntatu dugu eta zaila izan da. Orain ez zaio bueltarik eman behar.

Zapore garratzarekin edo gozoarekin gelditu al zarete?

Galparsoro: Bizikleta mundua ez zait batere gustatu, azkenean gelditzen direnak, lagunak dira. Orain aztertuta, barruko mundua ez zait batere gustatzen. Afizionatueta, zuzendariaketa, txirrindularitza gustatzen zaienak izaten dira, ez daude



diruagatik. Txirrindularitza bizi dutenak dira. Eta profesionaletan ez dago hori.

Gaztañaga: profesionaletan presio handia dago, presio handia egiten dute.

Galparsoro: Presionatu bai, baina askotan ez dago tratu humanorik. Beste kirolariek hitz egiten duzu eta uste dut berdina dela uste duela.

Gaztañaga: Talderen bat egongo da txirrindulariak gehiago mimatzen dituenak, lagun giro hori dagoena.

Galparsoro: Taldean lagun giroa sortu behar da, baina taldeetan pikea egoten da. Talde giro hori ez delako bultzatzen izaten da hori.

Gaztañaga: Desagertzekotan dagoen talde batean, aldamenekoaren "kontra" arituko zara, errepideak gero norbera bere lekuan uzten badu ere. Talderik ez dago eta konpetentzia oso handia da.

Galparsoro: Ziklistak, kanpotik ere, oso desprestigiatuta gaude orain. Zenbat kostatzen zaizun entrenatzea, profesionaletara ailegatzea... eta jendeak garrantziarik emango ez balio bezala da.

Gaztañaga: Desbalaratuta bezala dago azkeneko urteetan.

Galparsoro: Lehen gogoratzen naiz, gaztetan Jokin Mujika eta horiek ikusi eta... beste karisma bat zuten jendearekiko. Gu beste maila batean ibili gara, baina beste errespetu bat zegoen. Doping kontuak zerikusia izango zuen.

Txirrindularitzaren garai txarra harrapatu duzue beraz.

Gaztañaga: Garairik txarra nik uste, denek esaten dute. Zuzendariak ere hori esaten dute. Pro-tourrarekin karrera asko desagertu egin dira, talde mordoa minimoetan daude. Babesle batek zenbat aguantatuko adibidez, Vuelta España ez badu korritu behar? Karrera horietan ez baduzu parte hartzen, beste maila batean bezala zaude. Beti gonbidapenaren zain eta talde horiek ez dute asko irauten. Nahi dutena egiten dute taldeekin.

Galparsoro: Telebistak ere ez du txirrindularitza lehen bezala ematen eta azken batean hori ere dirua da.

Gaztañaga: Lehen Espainia mailan, karrera asko zeuden. UCI-pro Tour ez zegoenean, 4-5 talde hobereenak ekartzen zituzten eta beste denak bertako taldeak izaten ziren. Talde txikiak dena ematera joaten ziren. Gaur egun karrera asko ez dira existitu ere egiten. Euskal Bizikleta, Vuelta a Aragon, Semana Catalana,

Valencia... Euskal Herriko itzulira, talde txikiek, ia inor ezin du joan, Pro-Tourreko guztiak etortzen baitira. Kalte egin dio txirrindularitzari, UCI-Pro Tourrak eta dopingak.

Galparsoro: UCI-Pro tourrarekin, Championsarekin bezala egin nahi izan zuten. Futboleko eredu hartzen zuten baina horrek ez du balio. Futbolean, Champions dago, baina Liga, Kopa... ere badaude. Lehenengo maila, bigarren maila...

Gaztañaga: Futbolean batzuk jaitsi eta beste batzuk igo egiten dira. Pro Tourrean, nahi dutena egiten dute. Behintzat egingo balute, ondo ibili diren beheko lau talde igo eta goian gaizki ibili diren lau talde jaitsi...beste motibazio bat egongo litzateke eta beheko taldeek ere diru gehiago sartuko lukete igotzeko.

Galparsoro: Ni gogoratzen naiz, Kaiku zegoenean, Euskalteli izugarritzko mina egiten ziola. Ez baldin bada interesatzen zerbait egotea, ez da egoten. Handiak txikia jaten du.

Gaztañaga: Talde batzuek positibo eman eta ez dira inora joaten eta beste batzuk, alderantziz: nahiz eta positibo eman karreara guztietara joaten dira. Giro txarra dago.

Pelotoiko giroa nolakoa izaten da? Bakoitza berera al doa?

Gaztañaga: txirrindulari batzuk oso ondo bizi dira eta ez zaie borrokan sartzea interesatzen.

Galparsoro: Ez dago lider bat. Liderrak, denerako izan behar du. Batzuk ez dira bustitzen baina arazoren bat dutenean, denek beraiei laguntzea nahi dute. Lehenagokoak ez omen ziren horrelakoak. Gizarte Segurantzaz-eta lortzeko borroka egin zuten. Denak mugitzen ziren. Jendea ondo bizi da, badaki hila-bete bukaera kobratu egingo duela. Horrela dago jarrita. Talde batean ezin duzu hitz egin, gauza batzuk ezin dira esan. Konturatzen zara, ixilik egon behar zarela. Pentsatzen dut lan munduan, orokorrean, horrela izango dela. Nahiz eta gauzak gaizki ikusi, ixildu eta kobratu. Bakoitzak berea.

Gaztañaga: Ni Frantziako taldean egon nintzenean, gogoratzen naiz, dopingaren gaiarekin, esan ziguten paper bat ez baguen sinatzen ez zigutela berrituko. Sinatzen ez baguenen, Tourrera ez ginela joango. Frantsesek sinatu egin zuten, inorekin hitz egin gabe. Guk elkarte bat daukagu, kontsultatu eta oraindik ez sinatzeko esan ziguten. Ez gurelako sinatzen, haserretu egiten ziren. Batzuk sinatu eta besteek ez.. azkenean, behartuta beza-la zaude.



Mikel Gaztañaga

30 urte. Itsasondokoa. 6 urte profesionaletan.

Taldeak:

Baque (2004)
Catalunya-Angel Mir (2005)
Atom Elite (2006)
Agritubel (2007-08)
Contentpolis-Ampo (2009).

Garaipenak:

Madrilgo Erkidegoko itzuliko etapa (2006)
Getxoko zirkuitua (2006)
Vendeeko Tourra (2006 eta 2007)
Paredes Rota dos Moveis Sari Nagusiko etapa (2007)
Loire-Atlantique klasikoa (2008)

Gustuko karrera bat:

Ondo ibiltzen zarenean, gustukoak denak, baina Paris-Robaix asko gustatzen zait.

Inoiz ahaztuko ez duzun eguna:

Garaipenak buruan gelditzen dira beti.



Dioni Galparsoro

31 urte. Ataungoa. 7 urte profesionaletan.

Taldeak:

Euskaltel-Euskadi (2003-04)
Kaiku (2005-06)
Euskaltel-Euskadi (2007-08)
Contepolis-Ampo (2009)

Garaipenak:

Asturiasko itzuliko etapa (2005)
Hessen Rundfahrt itzuliko etapa (2005)

Gustuko karrera bat:

Paris-Niza.

Inoiz ahaztuko ez duzun eguna:

Afizionatu mailan Balentziagaren Oroimenezkoa irabazi nuen eguna.


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

10



Galparsoro: Pasatu beharrean zaude horretatik, bestela kanpoan gelditzen zara. Firmatu beharra daukazu. Txirrindularitzan zergatik bukatzen duzu desanimatuta? Azkeneko urteetan, etxera etorri, odola atera, zure etxean komunean pixa egiten... hori dena da, handiek ez dutelako ezetz esaten. Gu nola hain "garbiak" garen, guk denari bai esaten diogu. Boterea daukaten txirrindulariek "garbi" azaltzeko, edozer onartzen dute. Horrek ez dauka ez hanka eta ez buru. Aurreko batean kontrola egitera etorri zitzaizkidan eta etxean ez nengoenez, falta jarri behar zidatela, azalpenak emateko. Hiru falta, zuk esandako orduan etxean ez egotea, positibo da.

Gaztañaga: Hori dena onartuta daukagu. Kirol guztietan egingo balute... Txirrindularia da garbiena, seguru. Hilean behin, kontrol bat egiten digute, etxean. Horietaz gain, karrerakoak.

Galparsoro: Zenbat diru gainera!

Gaztañaga: Txirrindulari bakoitzeko 9 mila euro kostatzen zaio taldeari.

Galparsoro: Txirrindularitza garbiena izango da. Batzuk detektatzen dituzte baina beste batzuk ez, hemendik 10 urtera detektatuko dituzte.

Gaztañaga: Zuk nola dakizu Contadorrek ez duela ordaintzen kontrolak pasatzeagatik? Kontua da, beraiek dirutza irabazten dutela eta talde txikiak izorratuta daudela eta badakite karrera inportanterik ez dutela korrituko.

Zein interes dago?

Galparsoro: UCI dago hor. UCI da erakunde bat, nahi dutelako jarri dira eta dena antolatzen dute. Saltsa guztia mugitu nahi dute. Tourrekoak pixka bat kontra egiten hasi dira eta Tourrekoek ere pastela beraientzat nahi dute, ez dute besteen-tzat nahi. UCIkoek ikusi dute, laboratorioen kontuekin dirutza ikaragarria mugitzen dela. Guregandik bizi dira, guri bizitza inposiblea egiteko. Gero hori bai, 5 izarreko hoteletara joango dira... Ondo bizi dira.

Txirrindularitza askorik maite ez dutenak al dira?

Galparsoro: Txirrindulariak azkenean, zirkoan, pailazoa bezala da. Izugarritzko txirrindulariak ikusten dituzu, baina gizajoak, nagusiei aurre egiten ausartzen ez direnak.

UCIkoek gain, managerrak, zuzendariak... diru erraza dagoela uste dut.

Txirrindularitza itsusitu egiten da.

Galparsoro: Bai eta txirrindularitza berez oso polita da.

Gaztañaga: Tourra iristen da eta positibo nork emango duen zain egoten da jendea. Tristeia da hori.

Garai txarra bai, baina lagun onak egin dituzue behintzat.

Galparsoro: Azkenean horrekin gelditzen zara. Jende asko ezagutzen duzu, Espainia guztikoa.

Gaztañaga: Hemen entrenatzen gustura ibili gara baina kanpora errepidera joan eta askotan ez zinen gustura joaten. Bestela, garai txarra izan da. Taldeak ateratzeko gero eta okerrago. Taldeak desagertu egin dira. Kaiku, Baque... bi urte egin eta taldea kanpora. Horrela ibili beharra!

Galparsoro: Gauzak ondo egin nahi dituen jendea, askotan kanpoan gelditzen da. Baina horiek kenduz gero, beste dena ona izan da.



2002 urte inguruan profesioaletara igotzeko itxaropenarekin, Dioni Galparsoro, Aitor Perez eta Mikel Gaztañaga.

Balorazio ona egiten duzu beraz.

Gaztañaga: Bai, bai.

Galparsoro: Gauza asko ikasten da, batez ere norbera gainditzen. Helburu baterako prestatzen aritu eta gauzak ondo ez aterata, ikasi egiten da.

Gaztañaga: Lagunak...

Galparsoro: Ondo pasatu dugu gainera. Ingurukoak

tokatu gara eta elkarrekin aritu gara entrenatzen. Giro ona izan dugu. Urte onak bota ditugu. Itsusiena, karrerara joatea zen.

Normalean alderantziz izaten da ba.

Gaztañaga: Astelehenean entrenatzera joateko desiatzen egoten ginen.

Galparsoro: Asko entrenatzen genuen baina ez zitzaigun asko kostatzen. 180 kilometroko buelta egiten genuen igual. Ehungarren kilometroan gelditu, zerbait jan eta berriz elkarri erasotzen, ondo. Hori bai, ondo zabiltzanean eta irabazitakoan, hori ez da diruarekin ordaintzen.

Gaztañaga: Afizionatueta momentu oso onak bizi izan genituen. Karrerak irabazi, gainera profesioaletara pasatzeko aukera... Zortea ere izan dugu. Garai hartan profesioaletara pasatzea oso zaila zegoen. Orain Euskaltel hasi da gazteak hartzen.

Galparsoro: Gu, hiru bat urtean karrerak irabazten aritu ginen baina ez zen aterik irekitzen.

Gaztañaga: Orain beste garai bat da. Profesioaletan, talde onek, beste talde bat dute maila baxuagoan, gazteak hartzen

Astelehenean entrenatzera joateko desiatzen egoten ginen.

MIKEL GAZTAÑAGA

Ondo zabiltzanean eta irabazitakoan, hori ez da diruarekin ordaintzen.

DIONI GALPARSORO



2005. urtean birurak profesionalak zirelarik.



Iaz biru txirrindulariak Contempolis-Ampo taldean aritu ziren Jon Izagirrekin batera.

dituzte eta onenak aurrera pasatzen dira.

Galparsoro: orain Goierriin, beste belaunaldi bat dator, on-ona. Izagirre anaiak, Bravo, Landa... Ondo dabilta.

Txirrindularitza itsusituta dagoela esan dugu. Politago egiteko zer behar dugu.

Galparsoro: Doping asuntoak, baldin badaude ere, barruan gelditzea. Egunkarietan ez dago beste konturik. Horrek izugarritzko mina egiten du.

Gaztañaga: Barruko dopinga egingo balute, ona izango litzateke. Beste era batera muntatuta egon behar litzateke. UCI-pro tour eta tourra, ez da lotura ona. Agintzen duenak aldatzea ondo legoke.

Galparsoro: Orain oso kutsatuta dago.

Gaztañaga: Txirrindularitza oso kirol polita da.

Galparsoro: iruditzen zaigu hemen dagoela afizioa, baina gaur egun Euskal Herrian ez dago afiziorik. Badago, Tourrera joan eta parranda pixka bat egiteko baina Italian edo Belgikan dagoena ikaragarria da. Benetan gustatzen zaie txirrindularitza.

Txirrindularitzaz haratago ere bizitza badago

Profesionalki txirrindularitzarekin lotuta jarraitzeko asmo handirik ez dute ez bataz ez eta besteak ere. Galparsorok nahiago dut bizitza lasaixeagoa eraman eta etxetik hainbeste ez irten. Modulo bat egiten ari da Goirriko lanbide eskolan eta nahiago dut industria aldera jo. "Baina inoiz ezin da ezer esan", dio. Gaztañagak ere orain bizitza berrira egokitu nahi du "eta gero ikusiko da".

Galparsoro egun hauetan sei hilabete pasa eta gero, txirrinduan ibiltzera joan zen lehen aldiz. "Emozionatu egin nintzen. Umeen bezala: bizikletan ibili eta gustura. Nik afizionatuetatik ahaztuta neukan sentipen hori. Azkenaldian robot bat bezala ibili naizela iruditzen zait. Hala ere niri gustatuko litzaidake nire semea txirrindularia izatea".

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

LEIAR

KRISTALDEGIA
ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70
BEASAIN

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

txekin

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA



Lodosako ikastolako zuzendaria

Itzia Aizpeolea beasaindarra, Lodosako Ibaialde ikastolako zuzendaria da. Ez da beasaindar bakarra ordea Nafarroako Erriberan: Xabier Carnicer ere bertako irakaslea da. Arazo ekonomikoengatik joan zen abenduan ikastola ixteko zorian egon baziren ere, momentuz, ekaitzaren ostean barealdia iritsi da Lodosako ikastolara. Nafarroako eremu ez euskalduneko ikastolek bizi duten egoera kontatu digu Aizpeoleak.

Zer egiten du beasaindar batek Lodosan?

Gurasoek oporretako etxea erosi zuten Sartagudan eta mutil laguna ezagutu eta bertan gelditu nintzen. Sartagudako ikastola hasi nintzen irakasle duela 9 urte. Aurten, lehenengo aldiz zuzendaria naiz, Lodosako ikastolan.

Zer nolako urtea egokitu zaizun!

Egoera zaila beti izan da, diruarekin beti justu ibili izan gara. Baina aurten Nafarroako Gobernuaren laguntza kendu egin digute. Jaurilaritzatik ere ematen ziguten eta orain sartu direnak sartuta diru hori ere kendu egin digute. Superbibentzia. Abenduaren 22an, ikastola itxi egingo zela pentsatu genuen. Baina diru sarrera garrantzitsu bat etorri da, Nafarroako Ikastolen Elkartetik, eta aurrera egin dugu.

Ixteko zorian egon zarete beraz.

Bai, ez genekien berriz irekiko ote genuen. Badakizu Ikastola bat ixtea ez dela erraza baina dirurik ez bazen sartzen... ez geneukan argirik ordaintzeko ere. Ez genekien irakasleek kobratuko genuen ala ez... Momentuz, badoa.

Zertan aldatu da egoera?

Orain dela lau urte kontzertazioa eman ziguten. 10 irakasle daude eta kontzertatuak 3 eta erdi gara. 90 ume ditugu denera.

Kontzertazioa ez doa irakasle kopuruaren arabera, beraz. Kontzertazioarekin ez zaigu iristen. Beraz, Nafarroako Gobernuak dirulaguntza bat emango zigula esan zigun, beste irakasleen zati bat, ordaintzeko. Urtez urte murrizten joan da eta aurten kitto. Eusko Jaurlaritzak ematen ziguna ere ez daukagu. Orain, EAJ Madriden adostasun batera iritsi da Nafarroako ikas-tolentzako diru bat lortzeko. Diru hori ere orain iritsiko da eta arnas pixka bat emango digu.

Lodosako ikastolaz gain, gehiago ere badira Nafarroan, egoea larrian.

Viana, Irunberri eta Tuterako ikastolen egoera ere oso larria da. Nafarroa hiru eremutan banatzen da gu zonalde ez euskaldune-an gaude.

Eraikin berria da Lodosakoa. noizkoa da?

Sartagudan eta Lodosan, ikastola bana zeuden eta 2001ean Nafarroa Oinez egin zen, eta eraikuntza berria orduan egiteko Lodosan. Hori ere ordaindu behar dugu. Orain beste Nafarroa Oinez bat nahi dugu. Ea ematen diguten, baina ikastetxe gehia-go ere badaude egoera larrian, ikastetxe bakoitzak beren behar-rak dituzte. Diru sarrera potoloa izaten da Nafarroa Oinez eta behintzat eraikuntza ordaintzeko edukiko bagenu...

Nongo haurrak dabilta Lodosan?

Lodosak 4.000 biztanle inguru ditu eta Sartagudak 1.200. Baina inguruko herrietatik ere etortzen dira ikasleak. Bi autobus ditu-gu eta ondoko herrietako jendea etortzen da: Andosillakoak, Errioxako jendea ere etortzen zaigu, Alkanarrekoak, Mendabiakoak... Eskualdekoea da. Errioxa bost kilometrora dugu. 9 bat izango dira Errioxakoak. Batzuk hartzaindegian hasi ziren eta gustura zeudenez, jarraitu egiten dute.

Hartzaindegia ere badaukazue beraz.

0-12 urteko hezkuntza eskaintza daukagu. Orain, DBH lortu nahi dugu. Baina dirua behar da. Jangela ere badaukagu eta horrek ere jendea erakartzen du. %90 jangelan gelditzen da. Eskualdekoea izanik, ezin dira bazkaltzera etxera joan.

DBHa bukatutakoan, zein aukera daukate?

13 urterekin, Lizarrara joaten dira euskaraz jarraitu nahi dute-nek. Baina gurasoei diru asko suposatzen die haurrak Lizarrara bidaltzea. Kotxez, 20 minutu daude Lizarrara. Lizarrako ikasto-lara joateko, gurasoek dena ordaindu behar dute, garraioa eta dena. Diruz gaizki dabilta gurasoak, nahiz eta nahi izan, ezin dute haurra Lizarrara bidali. Baina orain, eskola publikoan euskaraz ematen hasi dira Lizarran eta jende asko hara doa. Autobusa dohainik dute, kostea askoz ere txikiagoa da, eta behintzat, euskaraz ikasten jarraitzen dute.

Kalean ez da euskaraz hitz egiten baina badakigu nork dakien euskaraz. Jakin badakite eta ez da gutxi.



Itziar Aizpeolea ez da Lodosako Ibaialde ikastolako beasaindar bakarra. Xabier Carnicer ere bertako irakaslea da.

Egoera zaila beti izan da,
diruarekin beti justu
ibili izan gara.

disek

ibaiondo

altzariak

- **barne diseinua**
- **dekorazioa**
- **sukaldeak**
- **proiektuak**

Katea, 5 - Antzizar auzoa

BEASAIN

tel.: 943 16 40 40

faxa: 943 16 47 47

mug.: 639 631 640

www.mueblesibaiondo.com

Zurgingedia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurrira.

JANTZI ZURE ETXEA

EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55

Cuatrocientos Industrialdea, 1

Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Urko Agirre zegamarra bere kantuak eskuartean zituela joan zen Gurutz Bikuña eta Jus Auzmendi ataundarrek duten musika lokalera. Zegamarraren proiektuarekin bat egin, 'Urko ta bihotzekok' taldea osatu eta lehenengo uzta kalean da dagoeneko. Otsailaren 25ean Zegaman eta martxoaren 5etan, Ordizian joko dute kontzertu bana.

'Urko ta bihotzekok'.

Urko: Hitz jokoa da eta bi esanahi izan ditzake. Bakoitzak nahi duena uler dezala, baina infartotik gertuago gaude. Zer jarriko genuen pentsatzen aritu eta horixe jarri genuen.

Taldea nola sortu zen, nola elkartu zineten?

Urko: 'Urko ta bihotzekok' taldea, orain dela bizpahiru urte sortu zen, baina aurretik ere elkarrekin genbiltzan. Abesti batzuk egin nituen bere garaian eta Ataungo lokal honetara etorri nintzen lagun baten bitartez. Hasieran Gurutzekin hasi nintzen.

Abestiekin etorri zinen beraz.

Urko: batzuk letra eta gitarrarekin eta beste batzuk akorde batzuekin.

Jus: Lokal honetan egunero jende asko pasatzen da. Talde ezberdinak, nahastuta... egunero mugimendu handia dago.

10 kantuk osatzen dute Goierriko taldearen lehenengo diskoa

Bost goierritarrek osatzen dute 'Urko ta bihotzekok' taldea:

Baxua: Igor Martinez ordiziarra

Gitarak eta armonika: Gurutz Bikuña ataundarra

Gitarak: Xabier Etxeberria ataundarra

Bateria: Jus Auzmendi ataundarra

Gitarra akustikoa eta ahotsa: Urko Agirre zegamarra

Zegaman eta Ordizian kontzertuak

Zegama: Otsailak 26, ostirala, 23:00etan.

Ordizia: Martxoak 5, ostirala, 22:30ean D'elikatuzen.

Atea beti irekita dago zerbait egin nahi duenarentzat eta Urko halaxe etorri zen ezagun baten bidez, kantekin etorri zen gainera.. Tokia egin genion eta musika egiteko jendea behar bazuen, hemen jendea bazegoela eta laguntzeko prest jarri ginen. Aldaketa batzuk egon dira baina azkeneko bi urtean, gu bostok gabiltza.

Urkoren proposamena gustatu eta aurrera egin duzue beraz. Proposamen berezia ekarri al zuen?

Gurutz: Proposamen kurioa zen eta denon artean forma ematen joaten gara Urkok ekarritako abestiei.

Urko: Hasierako abestietatik hona aldaketa handiak egon dira, bakoitzak bere ekarpenak egin ditu eta.

Hasi eta diskoa ere kalean daukazue dagoeneko.

Urko: Zortea eduki dugu diskoarekin. Abestiak egin genituenean, kontzerturen bat egingo ote genuen eta prestatzen hasi ginen. Taldeko bik Ampon lana egiten dugu eta Ampok urtero egiten duen Euskararen egunean kontzertua jo genuen. Dirulaguntza ematen ari zen Ampo eta diskoa ateratzeko eskatu genuen. Gurutzek Mikel F. Krutziaga Teknikoa ere ezagutzen zuen eta aurrekontua eskatu genion. Ampok emandako diruarekin posible zelako, grabatzea erabaki genuen. Asteburu batean, bi egunetan, Elkarra joan eta bertan grabatu genuen. Horrela prezio onean atera zaigu.

Ataungo festetan egin zenuten aurkezpena ezta?

Urko: Bai, azaroan, San Martingo festetan. Orain Zegaman eta Ordizian joko dugu.

Etxean jotzea abantaila al da?


Gurutz: Etxean jotzea ez zait gustatzen.

Jus: Ez da erreala izaten. Ataunen jo genuenean bezala: jende mordoxka bat, dena ondo... ez da erreala. Jende ezagunak beste jarrera bat dauka. Ezagutzen ez zaituzten lekua hobea da.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak
Teorikoa 5 egunetan
CAP baimen profesionala

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

Zer moduzkoa izan da diskoa grabatzeko esperientzia?

Gurutz: Gehientsuenok bagenuen esperientzia.

Urko: Nik neronik ez neukan esperientziarik baina erraza izan da. Krutziaga bera lokalera etorri zen. Teknikariak argi zeukan nola egin behar zuen eta erraza izan zen.

Gurutz: Entseiu batera etorri zen eta berak esan zigun zertan fijatu. Denak batera grabatu genuen. Oso erraz egin genuen. Entseiu batean jotzen arituko bagina bezala izan zen. Ez zen Benito Lertxundiren disko batean bezala, banaka grabatu, egun asko... Guk abesti bakoitza hiru aldiz jo eta onentsuena aukeratu genuen.

Jendeari gustatu zaio, edo bihotzekorik eman al die...

Jus: Gustatuko zaizu ala ez zaizu gustatuko. Baina garbi dagoena da, diskoa ondo grabatuta dagoela. Teknikaria oso ona da eta oso lan ona egin du. Borobildu egin du.

Gurutz: Hobetuta dago (dio irribarrez). Nahasketak oso ondo daude.

Urko: Jendeak nahiko jarrera ona izan du. Nahiko ondo saltzen ari da.

Nola definituko zenukete 'Urko ta bihotzekok' taldearen musika?

Gurutz: Pop-rock.

Urko: Lasai entzuteko musika da. Zuzenean indar gehiago dauka.

Zein da zuen helburua?

Gurutz: Jotzeko aukera izatea.

Urko: Nahikoa zaila dago, baina helburua, ahalik eta leku gehienetan jotzea da. Zuzenekoak ilusioa egiten du, gauza polita da eta horren bila gabiltza. Diskoa hor daukagu erakusteko, aurkezpen bezala, eta zortea da.

Letrekin zer esan nahi duzue?

Urko: Denetik. Kantuak aspaldikoak dira. Bi edo hiru berriagoak dira. Senagala bidaiaren ondoren bat edo beste egin nuen eta emigrazioaren inguruan badago abestiren bat, tratu txarrak... betiko zoritxarrak. Ez dira denak letra tristeak, denetik dago.

Kontzertuak diskoko abestiekin bakarrik osatzen al dituzue?

Urko: Beste abesti pare bat prestatu ditugu zuzenean jotzeko. Horrez gain, Ruper Ordorika eta Txuma Murugarrenen bertsioen bat ere ba ditugu.

The Kinks taldea gogoratu duzue abestei batean.

Gurutz: Gure garaiko taldea da.

Jus: Eta gure oso gustuko taldea. Abesti batek, The Kinksen tankera dauka eta diskoan adierazi dugu.

Urko: Nik ez nuen ezagutu ere egin. Nik letrekin eta gitarrarekin pres-



tatuta ekarri nituen kantuak. Hemen, pixkanaka egokitu ditugu. Bakoitzak berea aportatzen du. Moldatzen joan gara. Politena hori da: kantua biluzik ekarri eta hartzen duen forma.

Gurutz: Bakoitzak daukan ibilbide musikaletik ideiak botatzen dira.

Urko: Aberasgarria da. Jendea izugarriko ilusioarekin etortzen da eta hori da garrantzitsua.

Beraz, esperimentatzen aritzen zarete, laborategian bezala.

Gurutz: Bai, eta ateratzen dena ikusita, hori da.

Jus: Guk lokal honekin, 15 urte daramatzagu. Hemendik jende asko pasatu da eta pasatzen da. Gazteak etortzen dira eta guretzat oso polita da.

Gurutz: Animatu egiten zaituzte.

Jus: Lokal hau pribatua da. 1982tik Belarra izeneko taldea daukagu eta geuk egindako lokala da. Ez da Belarra taldearentzat bakarrik. Belarrak hemen entseiatzen du baina irekia da. Bat gitarra klaseak hartzea etortzen da, hasi nahi duena... denetik etortzen da.

Zerbait berezia, nobedoso... atera al da laboratorio honetatik?

Gurutz: Badaude proposamen batzuk bai, hasi berriak dira baina badaude.

Jus: Kantu hauek ez daude diskoa grabatzeko pentsatuta. Kantuak hor zeuden eta diskoa egiteko aukera etorri zen. Normalean, kantuak landu eta orduan eramaten dira grabatzeko. Guk alde-rantziz egin genuen: kantuak zeuden bezala eraman genituen grabatzera.

Urko: Abesti berriak egiten ari gara, eta ezberdinagoak egiten dira.

Gurutz: Estilo ezberdinak ikutzen ditu, baina heavyrik ez dago.

Urko: Momentuz ez.

Gurutz: Guk behintzat ile luzea kontserbatzen dugu, beste batzuek ez.

Beteranoentzat ere esperientzia polita izan da orduan.

Gurutz: Bai. Hona etortzen den jendeak ostikotxo bat ematen digu ipurdian eta hori ondo dago, bestela beti betikoan aritzen zara. Itxita. Gazteek freskura ekartzen dute, ilusioa jartzen dute.

Gazteak ala beteranoak du ilusio handiagoa?

Gurutz: Ilusioa gazteak dauka, zuzenean jotzekoa batez ere, eta horrek kutsatu egiten du.

Zu Gurutz Benito Lertxundiren taldean aritzen zara. Aurretik 'Ancha es Castilla' Goierriko taldeko partaide ere izan zinen...

Gurutz: A ze oroimenak! 'Ancha es Castilla' 1987tik 1993ra bitartean izan zen. Bira batzuk egin genituen: Bartzelonara, Madrilara, Caceresara, Suitzara... Hiru disko atera genituen.

Ordizia

Kimetz elkartearen 16. kontaketa lehiaketa

Ordiziako Kimetx elkartek, 16. kontaketa lehiaketaren oinarriak kaleratu ditu dagoeneko. 18 urtetik gorakoek har dezakete parte bertan. Lanak lehenengo aldiz aurkeztuak izango dira eta beste inon saritu gabeak.

Lanen gaia, librea izango da. Luzerari dagokionez, gutxienez 5 eta gehienez 10 orrikoak izango dira. Euskaraz, zein gazteleraz. Sexismorik gabeko hizkera erabiltzea kontutan edukiko da.

Lanak apirilaren 12a baino lehen bidali beharko dira, Ordiziako Barrena Kultur Etxera (Nikolas Lekuona enparantza, z/g). Ekainean emango dira sariak. Bi sari banatuko dira: euskarazko eta gaztelerazko lan onenentzat, 600na euroko saria. 200 euroko akzesita emango zaio, emakumezko batek idatzitako kontaketa onenentzat. Azkenik, 150 euroko sari berezia izango da, ordiziar batek idatzitako kontaketa onenentzat.

Gabiria

Sahararen aldeko krosa

Salem Hach Embarek IV. memoriale jokatu da otsailaren 28an Ormaiztegin, Sahara-cross elkartek antolatuta. Goizeko 11etan hasiko da lasterketa. 10 kilometroko ibilbidea dago prestatuta. Izena aurrez ematea eskatzen dute antolatzaileek. Aldez aurretik izena ematen dutenek, merke-gea izango dute izen-ematea, 8 euro. Egunean bertan izena ematen dutenek, berriz, 10 euro. Bi maila bereizituko dira: 18 urtetik gorakoak eta 40 urtetik gorakoak.

18 urtetik beherakoek ere izango dute beraien lasterketa. 12:15etan hasita. Sinbolikoa izango da, kilometro bateko ibilbidearekin. Izena ematerakoan, borondatea eskatuko da. Partehartzaile bakoitzak kamiseta bana jasoko dute produktu ugari banatuko da saritan.

Ormaiztegi

Igartza: Idazle berrientzako XIII. Literatura sorkuntza beka

Beasaingo Udalak, Beasaingo CAF enpresaren babesarekin eta Elkar argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaltzeko eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz, XIII. Igartza literatura-sorkuntzako beka sortu du. Bekak, 6.000 euroko dirulaguntza izango du.

Narratibako lanak (eleberrri edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak aurkez litezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, beren zatiren bat edota osotasuna inon argitaratu gabea dutenak, sarituak izan ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak.

35 urtetik beherakoek har dezakete parte lehiaketa honetan. Horretaz gain, beste baldintza bat ere bete behar da: aurretik lan argitaraturik izatekotan, helduentzako narratibaren liburu bat baino gehiago ez izatea. Sari hau behin irabazi duen idazlea ezingo da berriz aurkeztu.

Partehartzaile bakoitzak, lau aldakitan eta bere benetako izena agerian jarri gabe, ondorengo agiriak aurkeztu behar ditu bere proiektuarekin batera: landu nahi duen kontakizunaren azalpena, 2-4 orriko; idazlanaren lagina edo erakusgarria, 15-20 orrialde bitartekoa; gutunazal itxia, kanpoko aldean idazlanaren izenburua izango duena eta barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa eta nortasun-agiriaren fotokopia.

Proiektuak ekainaren 30a baino lehen bidali behar dira ondorengo helbide honetara: XIII. Igartza Literatura-sorkuntzako Beka. Euskara Zerbitzua. Udaletxea. Loinazko San Martin plaza. Beasain.

Urtebeteko epea

Karmele Jaiok, Igor Estankonak eta Xabier Etcheberriak osatuko dute epaimahaia. Aurkeztutako lanek behar adinako kalitatez ez duela iriziz gero, beka eman gabe utz dezakete epaimahaioek.

Bekaren diru kopuruaren erdia, irabazle izendatu bezain laster jasoko du irabazleak, eta beste erdia, idazlan amaitua entregatu eta epaimahaioek emandakoan, lehen erdia jasotzen duenetik urtebetetara hain zuzen ere.

Irabazleak, izendapena jaso eta urtebeteko epea izango du gehienez, idazlan amaitua Beasaingo Udalari helerazteko. Luzera, gutxienez, 75 orrialdekoa izango da. Bitarte horretan, egileak hasierako proiektua aldatu nahi izango balu, epaimahakoei jakinarazi beharko die aldaketaren berri eta haien onespina jaso beharko du.

Ikaskide akademia

Joan Iturralde, 5 - 943 160 120 eta Urbialde plaza 7 - 943 027 792

www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduloak

HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta Frantsesa

UNIBERTSITATE MAILA: Goierrko Unibertsitatea

MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA

LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Irakurmena, kalkulua, ikasketa teknikak



SILVIA MIRAS CASASAYAS

ODONTOLOGOA

KOL. Zko. 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



Beasain

Otsaileko ekintzak

Otsailak 24, asteazkena:

18:00etatik 21:00etara: Sukaldaritza ikastaroa Iker Markinez sukaldariarekin, Aizkorri Mendizale Elkartean, Udal Euskaltegiak antolatuta.

Otsailak 27, larunbata:

16:30ean: Doinu zaharren eta aurrekuaren XIX. txapelketa, Usurbe antzokian, Aurtzaka Dantza Taldeak antolatuta.

Otsailak 28, igandea:

11:00etan: Doinu zaharren eta aurrekuaren XIX. txapelketa, Usurbe antzokian, Aurtzaka Dantza Taldeak antolatuta.

Eraskusketak

Otsailaren 28ra:

Haurralde Fundazioaren Munduko emakumeak erakusketa, Usurbe Atzokiko Erakusketa aretoan.

Martxoaren 4tik 14ra:

Landarlanek antolatuta, 'Lur-zientziak Urdaibain' erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan.

Beasain Ordizia

Antzerkiaren Garaia

Martxoak 5, ostirala:

22:15ean: 'Arrastoa' (Txalo produkzioak). Beasaingo Usurbe Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Martxoak 26, ostirala:

22:15ean: 'Marika de playa' (Glu glu produkzioak). Beasaingo Usurbe Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Lazkao

Oin-Arin dantza taldea Arerian

Otsailaren 26an, arratsaldeko 7etan, Oin Arin dantza taldeak emanaldia eskainiko du Areria kulturgunean.

Liluratura, Uxue Alberdirekin

Hurrengo Liluratura saioa Uxue Alberdirekin izango da Gerriko txokoan. 'Aulki-jokoa' liburua irakurri eta elgoibartarrarekin hizketan jarduteko aukera izango da, martxoaren 2an, arratsaldeko 6,30etan.



**RENAULT
LAZKAO GARAJEA**

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

TOLARE

URBITARTE

SAGARDOTEGIA

943 18 01 19 ATAUN



- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

943 16 03 04

Zegama**Zeramikagileen maratokia**

Martxoaren 7an, 'Ollerias maratokia' izango da, goizeko 8:00etatik arratsaldeko 6:00etara. 10 zeramikagile ariuko dira, 10 orduz.

Ordizia**Ordiziako Gaztetzearen
24. urteurreneko ekitaldiak****Otsailak 27, larunbata:**

17:30etatik aurrera, umeentzako jolasak plazan.

Martxoak 5, ostirala:

20:30etatik aurrera, Monologo saioa, Ordiziako Gaztetzearan.

Martxoak 6, larunbata:

22:30etatik aurrera, kontzertua: Kortozirkuito, Residuos Sistematicos, Deskriados, The Last Strength eta Kolapso. Beasaingo Residuos Sistematikos taldeak agur kontzertua egingo du Ordizian. Laguntza sarrera: 3 euro.

Idiazabal**Etxeko lantxoaren ikastaroa**

Martxoaren 10ean, Etxeko lantxoaren tailerrari hasera emango zaio Idiazabalen. Ikastaroa Herri Eskolako jangela emango da, asteazken eta ostegunetan, 16:30etatik 18:30etara. 20 orduko ikastaroa da, beraz 5 asteko iraupena izango du guztira eta euskaraz izango da. Alfredo Prieto izango da irakaslea. Bertan iturgintza, elektrizitatea, igeltseritza eta zurgintza bezalako gaiak landuko dira. Tailer hauek honelako kontuetan inongo esperientziarik ez dutenentzat daude zuzenduak, hau da, 0 maila dutenentzat bakarrik. Etxeko lantxoaren tailerrean parte hartu nahi duenak martxoak 5 baino lehenago eman beharko du izena Udaletxean. 30 euroko kuota ordaindu beharko da.

Beasain**Break ikastaroa gazteentzat,
ingelesez**

Beasaingo udaleko gazteria sailak bultzatuta, Break ikastaroa antolatu da datozen hilabeteetarako. Ikastaro honen ezaugarri nagusietako bat ingelesez emango dela da. Honela dantzan ikasteaz gain ingelesez aritzeko edota ikasteko aukera izango da. Ikastaroaren arduraduna Ander Goss da, egun Beasainen bizi baina jatorriz ingelesa den 23 urteko gaztea. Informazio gehiago, Beasaingo udaletxean.

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Olagi*Sagardotegia
Jatetxea***Urte guztian
zabalik**

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko meua

© 943 88 77 26 ALTZAGA




ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × e.a.



AUZOKI

Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea

ORDIZIA

Tel.: 943 087 486



Mutiloako luistarrak, 1933. urte inguruan

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Maximiano Telleria (Ugarte), Joxe Arrondo (Ostatu), Fernando Mendizabal (Urbizuaranzahar) eta Juan Goiburu (Berbategi).

Erdiko ilaran: Joxe Larruzea (Mutiloako medikua), ezezaguna, Andres Intxausti (Iturrioz), Lontxo Murgiondo (Murgiondo), Joxe Mari Aranburu (Sesaripa), Pio Alustiza (Olano) eta Antonio Alusitza (Olano).

Eserita: ezezaguna, Manuel Goia (Elizaurre), Joxe Telleria (Atinberhaundi), Luis Iparragirre (Ugalde), Joxe Mari Aldasoro (Gaztañadierrota), Eulogio Telleria (Murgiaran) eta Pantaleon Gaztañaga (Buztindegiko morroia, Ormaiztegia).

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ZALBIDE

TOLARE SAGARDOTEGIA

biok kudeaketa

z er bit zu ak fiskala

Tel 943 88 44 00 kontablea

Faxa 943 80 51 27 merkatala

www.biokzerbitzuak.com laborala

Ordizia Urdaneta, 7

ondoeta

ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia **OLABERRIA**

MUJKA 19


MUJKA

LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

ZURE LORATEGIA ETA BARATZA ZAINTEKO BEHAR DUZUN GUZTIA, ESPAZIO BAKAR BATEAN



| Erregadioa



| Lorontziak



| Haziak



| Ongarriak



| Lurak eta harriak




| Lan tresnak

LORATEGI LANAK ERE EGITEN DITUGU. INFORMA ZAITEZ!



Altune poligonoa, 4-G. OLABERRIA
943 88 30 53




U010

UDAKO OPORRAK
2010

NORA JOAN AUKERATU ZUK

eta gainontzekoa
egingo dugu guk

abio@abio.es
www.abio.es



VIAJES
ABIO

BIDAIAK

AURRERATU ZAITEZ LEHENENGO PREZIOAK

Erreserba 2010eko
martxoaren 31 baina
lehenago egiten baduzu
deskontu berezia izango duzu
zure udako oporretan.

* Zehaztasun gehiagorako zatoz Abio Bidaiakera edota
jar zaitez gurekin harremanetan.

%10
-eko

BEHERAPENA

Turkia, Praga-Budapest
Egipto, Eskandinabia

%15
-eko

BEHERAPENA

Irak, Karibea
eta Tunizia

943 805 311